HIRIGINTZA-ANTOLAKUNTZA

6. PRAKTIKA

6. praktika taldeka izango da, eta aurreko praktikaren herri berdinean (Urola-Kostakoek Zumaian egin dezakete).

4. praktikan analogian oinarritutako zabalgunea proposatu bagenuen, oraingoan oinplano berriko proposamena eskatzen da, analogiarik erabili gabe. Gaur egun eraikigabeko eremua edota industriek betetako esparrua aukeratu behar da, azken hauek eraitsiz.

Egin beharrekoa:

1. Hirigintza-antolakuntza garatzeko eremua aukeratu eta mugatu (4 eta 6 hektarea artean). Muga ondo ikus dadila. Azaldu zergatik aukeratu den.
2. Eremuan etxebizitza-antolakuntza bat proposatu, eraikigarritasuna 0,4 eta 1,3 m^2s/m^2l bitartekoa izanik. Behe-solairuetan komertzioak egon daitezke. Azaldu eta arrazoitu.
3. Eremuaren azaleraren %15a gutxienez hartuko duen parke edo plaza bat kokatu eta definitu (zatitu daiteke, baina gutxienez 30 metroko zirkulu bat inskriba dadila).
4. Ekipamendu publiko bat definitu.
5. Ondo definitu beharko dira kale-sarea, espazio libreak eta eraikinen neurriak, plantan zein sekzioan.
6. Antolakuntzaren hirigintza-parametroak adieraziko dira: eraikigarritasuna (azalera eta koefizientea), okupazioa (azalera eta portzentaia) eta dentsitatea (pentsa daiteke etxebizitza bakoitzak 100 m^2ko azalera duela).

Proposamena azaltzeko beharrezkoak diren planoak eman beharko dira, besteak beste, honakoak:

- Proposamena eta hiriaren arteko erlazioa adierazteko planoa 1:2000 eskalan.
- Antolakuntzaren planoa 1:500 eskalan.
- Sekzio adierazgarrienak eta hirigintza-parametroak.
- Ematea paperean (din A2 edo A1) eta PDFan izango da.

EMATE-DATA: Ekainaren 10an, asteartea, 8:30tik 11:30ra, irakasleak kontrakoa esaten ez badu.